

G E R N I K A N



ARBOLA ZARRAREN OÑEAN

Zeru azpi beztuba
 ¿zerk du garbitutzen,
 zerk disdirak begiyak
 dizkit argitutzen,
 zer det nere aurrean
 gaur nik arkitutzen,
 zerk nau ni modu ontan
 emen arritutzen?

Arbola ikusteak,
 ¡o! arbol zar onak,
 zutik milla urtean
 lur ontan daguanak,
 ni gaur bezela gure
 aitonea aitonak,
 mirezturik berari
 begira egonak.

Agur Arbola Santu
 egur zerukoa,
 Jaunak lur maite ontan
 landatutakoa,
 zenbait frutu on gozo
 emanikakoa;
 beti neukan naitasun
 zu ikustekoa.

Lur onetan lenengo
 gaur allegatzen naiz,
 zuri muñ ematera
 etorria bainaiz;
 ematez ta laztantzez
 aspertu ezin naiz,
 Jaunak lan onetara
 bildu nazala maiz.

Gertatzen naizelako
 gaur alde zugandik,
 ez nuke nai bidaje
 au egin alferrik;
 ala, ez nairik jira
 zerbait kutsu gabe,
 egiten naiz adarcho
 igar baten jabe.

Zure puska, fueruen
 oroimengarriya,
 irukiko det kajan
 kristalpe jarriya;
 eta nola muñ-dutzen
 degun erlikiya,
 ala muñ-duko det nik
 zure alderdiya.

Zaudelarik zaurien
 zauriz joa bea,
 etorriko da beste
 denbora obea;
 gertatu bañan len zu
 mundutik gordea,
 goitituko da zure
 seme oin-ordea.

Adío abe zarra,
 adío betiko,
 zu azkentzen zaude ta
 ni sarri naiz ilko,
 bañan nola dan aritz
 gaztea biziko,
 bera da lore preskoz
 jazten ikusiko.

RAMÓN ARTOLA.

B O N A N Z A



(SONETO)

Trovas de amor el marinero agota,
 alejándose en frágil barquichuelo,
 cuando el sol va rasgando el negro velo
 que la presencia de la noche anota.

El terrible huracán, que al mar no azota,
 no quiere producir terror ni duelo,
 sólo la brisa da un ligero vuelo
 á la lancha, que airosa en el mar flota.

Todo es encanto y luz y poesía,
 todo belleza; el mar, que está rizado,
 da su concurso al cuadro encantador
 y muy lejos, radiante de alegría,
 el marinero pesca sin cuidado
 al par que entona un cántico de amor.

UBALDO USUNÁRIZ.

